



Osasuna Politika Guztietan

BATZORDE TEKNIKOA



Txosten
sektoriala **2018**

**Jarduera Fisikoa
eta Kirola**

2019ko maiatzaren 28an



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD



Jarduera Fisikoa eta Kirola

OSASUN BATZORDE TEKNIKOA POLITIKA GUZTIETAN/ JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZAREN TXOSTENA 2018-2019/ MUGIMENT PROIEKTUA

1. SARRERA

Sedentarisinoa eta ariketa fisikorik eza gure inguruan ere aurre egin beharreko arazo orokorrak dira. Horiek konpontzeko, gizarte eragile anitzek batera jardun behar dute. Horregatik, Mugiment proiektua abian jarri zen eta ariketa fisikoaren sustapenean esku hartzen duten entitate guztiei parte hartzeko aukera eman zitzaien.

Hainbat urtez gogoeta egin ondoren, legealdi honen hasieran pilatutako ideiak praktikara eramateari lehentasuna eman zitzaion eta honako neurri hauek hartu ziren:

- Zuzendaritzari **izena aldatu zitzaion**: “Kirol Zuzendaritza” izatetik “Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza” izatera pasa da, eman nahi zaion garrantzia adierazi ahal izateko.
- 2019. urte amaierara arte **Laguntzarako Idazkari Teknikoa** kontratatu zen.
- Zuzendaritzako **teknikari** bat Mugiment proiektuaren buru jarri zen.
- Mugiment proiekturako **aurrekontua** handitu zen, 2018an abian jarritako diru-laguntzetarako deialdia finantzatzeko.

Jatorrian Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren ikuspegia bakarrik aintzat hartu arren, argi dago bestelako sailek ere parte hartu dutela jarduera fisikoaren sustapenean. Izan ere, orain arte Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak, Lan eta Gizarte Politiken Sailak eta Osasun Sailak batera egin dute lan Mugiment proiektuaren garapenean. Osasun Sailak ibilbide luzea egin du ariketa fisikoaren sustapenean.

Horiez gain, ariketa fisikoaren esparruan lan egiten eta emaitza garrantzitsuak lortzen ari diren bestelako entitateak ere badira, nahiz eta orain arte Mugiment proiektuarekin harremanik ez izan. Deigarria da zenbat udalerrri ari diren aurrerapenak egiten mugikortasun aktiboari dagokionez.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza Mugiment garatzeko baliabide gehiago biltzen ari da. Hala ere, gure ustez ez dira nahikoak. Mugiment proiektuak gizarte ohiturak aldatu nahi ditu eta, horretarako, jarduera fisikoaren sustapenean parte hartzen duten eragile guztiek batera egin behar dute lan.

2. MUGIMENT: DEFINIZIOA, IKUSPEGIA, ZEREGINA, HELBURUA

DEFINIZIOA

Mugiment lankidetzak proiektu bat da, euskal gizarte aktiboa lortzeko xededuna; jarduera fisikoaren alde egiteko eta sedentarismoa jaisteko ekimenak batzen ditu, eta aktiboak ez direnak ohitura horri uzteko neurriei lehentasuna ematen die.

IKUSPEGIA

Mugiment proiektuak jarduera fisikoa sustatzeko ekimenak bildu eta ezagutzera eman nahi ditu, eragile gehiagok esparru horrekin bat egiteko eta bertan lan egiteko helburuarekin

ZEREGINA

Esparru desberdinetako eragileok batera egiten dugu lan jarduera fisikoaren inguruko gizarte ohiturak hobetzeko. Eragileen kopuruak eta antolatutako ekimenen kopuruak gora egin du, eta ondorioz, inaktiboak eta sedentarioak diren gero eta lagun gutxiago daude gure gizartean.

HELBURUA

Jarduera fisikoa areagotzea eta EAEko biztanleen sedentarismoa gutxitzea.

3. BALIABIDEAK

3.1. IDAZKARITZA TEKNIKOA

Mugiment garatzeko, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak enpresa bat kontratatu du proiektuaren Idazkaritza Teknikoaren lanetarako.

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren kirol kudeatzaile bat Idazkaritza Teknikoaren lanaren jarraipenaz arduratuko da.

3.2. AURREKONTUA

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak 2018an Mugiment proiekturako gastatutako aurrekontua:

	2018
Diru-laguntzak	170000.00
Idazkaritza Teknikoa	120000.00
Kirol kudeatzailea	60000.00
Community manager	21778.79
Komunikazio euskarriak	17968.50
Web orria	17802.13
GUZTIRA	407549.42

4. 2018AN BURUTUTAKO ZEREGINAK

4.1. MUGIMENT SUSTATU DUTEN ERAKUNDEAK

Mugiment proiektuaren parte-hartzea irekia da. Jarduera fisikoa sustatzearen alde egiten duen edozein erakundek Mugiment proiektuarekin egin dezake bat, proiektuaren sustatzaile bilakatuz.

Mugiment proiektuaren sustatzaile izateko, hiru baldintza bakarrik bete behar dira:

- Aktiboak ez direnek hala izateari uzteko aukera emango dieten ekimenak sustatzea.
- Gomendatzen da Mugiment proiektuaren logoa publikoki erakustea ekimen horiek zabaltzerakoan.
- Aktiboak ez direnei hala izateari uzteko aukera emango dieten ekimenak Mugiment web gunean argitaratzeko bide ematea.

Mugiment Idazkaritza Teknikoak jarduera fisikoaren sustapenaren alde lan egiten duten eragileei Mugiment proiektuan parte hartzea proposatu.

4.2. MUGIMENT SAREAK

Tokiko sareak sortzeko eta garatzeko lan egiten jarraitu da, jarduera fisikoa praktikatzeko ekintzak bultzatzeko lanetan, tokiko administrazio bakoitzean inplikaturako eragile desberdinak koordinatzeko.

Idazkaritza Teknikoak jarduera fisikoa sustatzeko eragile nagusiekin kolaboratzen du eta, horretarako, tokiko sareak sortzen eta/edo mantentzen ditu

4.3. KOMUNIKAZIOA

Azaldu den bezala, jarduera fisikoaren sustapenean mota desberdineko eta esparru desberdineko eragileek hartzen dute parte. Aniztasun hori oso aberasgarria izan daiteke, baina zailtasun handi bat sortzen du, alegia, eragile desberdinen arteko koordinazioa.

Eragile horien guztien artean, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza bat gehiago da, eta ez du koordinazio konplexu horretatik arazo guztiei aurre egiteko ez baliabiderik ez ahalmen nahikorik. Hala ere, ekarpen garrantzitsua egiten du gabeziak arintzen joateko, eta funtsezko oinarria izan daiteke koordinazioa hobetzeko, alegia, proiektuaren komunikazioa bere gain hartzeko.

Eragile desberdinekin hitz egin ondoren, nabarmen geratu da ez dutela ezagutzen gainerako eragileek egindako lana. Egoera hori guztiz aldatu nahi dugu eta, horretarako, etengabe zabaldu nahi dugu ariketa fisikoaren esparruko profesionalei zuzenduriko informazioa, esperientziak elkar trukatzuz eta abian jartzen diren ekimenak ezagutzera emanez.

Mugibili proiektuan azken urteotan pilatutako esperientzia erreferentzia hartuta, Mugiment proiektuak jarduera fisikoaren esparruko komunikazio zerbitzu bat eskaintzen du. Profesionalengana iritsi nahi da, “kutsatze” efektu hori lortzeko. Horrelakoetan ere, lehentasuna emango zaie aktiboak ez direnei hala izateari uzteko aukera emango dieten ekimenei. Mota horietako gero eta ekimen gehiago daude, eta ezagutzera emanez gero, bizkorrago zabalduko dira. Hauek dira 2018ko lorpenak:

- Mugiment.eus sortzea.
- 11 aldizkari bidaltzea eta 3058 irekitzea.
- Blogean 107 post eta 3167 tuit argitaratzea.
- 4 bideo eta 3 gida tekniko argitaratzea.
- 8 prentsaurreko, orientazio zerbitzuak aurkezteko.

4.4. DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak 2018an diru-laguntzen deialdi bat kaleratu zuen, aktiboak ez direnek hala izateari uzteko neurriak sustatzeko (27 udalerriri eman zaizkie diru-laguntzak).

5. EBALUAZIOA

Hauek dira 2018. urteari dagozkion lorpenak. Urte horren amaieran zera lortu da:

- 65 Mugiment entitate sustatzaile.
- 14 Mugiment sare emaitza zuzenekin.
- 19 orientazio zerbitzu.
- 1.200.431 iritzi sortu dira Interneten (web orrietan+Twitterren)
- 27 erakunderi eman zaie diru-laguntza.
- Exekutututako aurrekontua 407.549,42 eurokoa izan zen.

6. 2019. URTERAKO AURREIKUSITAKO ZEREGINAK

1. Entitate sustatzaileen kopurua zabaltzen jarraitzea
2. Mugiment sareen kopurua zabaltzen jarraitzea eta existitzen diren orientazio zerbitzuei buruzko gogoeta bat egitea, berriak sortzeko.
3. Diru-laguntzen deialdia argitaratzea. Aurten, orientazio zerbitzuak eratzeko izango da.
4. Formakuntza. Aurreikusi da jarduera fisikoaren orientatzaile izateko bi ikastaro antolatzea.
5. Komunikazioarekin jarraitzea. Zeregin horretarako pertsona bat kontratatu da (Community Manager) eta lanean ari da dagoeneko.
6. Ebaluazio sistema bat ezartzea EAEko jarduera fisikoaren egoera ezagutzeko.
7. EAEko entitateen eta Estatu eta Nazioarteko mailako beste batzuen arteko koordinazio lanekin jarraitzea.
8. Aurreikusitako aurrekontua :450.000,- euro.

Mugiment sareak sektoreen arteko lan-taldeak dira. Euren helburuen artean jarduera fisikoa sustatzearena aurkitzen da. Sare horiek tokikoak dira eta partaideen artean Mugiment proiektuan parte hartzen duen entitatereen batek egon behar du.

Mugiment sareak lehentasunezkoak dira Mugiment proiektuaren barruan. Gainerako jarduerak antolatzeko oinarri hartzeko funtsa izan daitezke. Gizarte esparru desberdineko eta erkidegoarekin etengabe harremanetan dauden pertsonen ikuspegi aberasgarriagoa eta osatuagoa eman ahal digute aktiboak ez direnen errealitateari eta premiei buruz.

Jarduera fisikoaren inguruan orientatzeko zerbitzuak ariketa fisikorik egiten ez dutenek eskuragarri duten baliabide bat da, aholkularitza, orientazioa eta beharrezko laguntza jasotzeko. Bertan aditu batek ariketa fisikoaren inguruko beren ohiturak hobetzen lagunduko die, aldizka egitea lortu arte.